

ADMINISTRAZIO-BALDINTZA BEREZIEN PLEGUA; **ZERBITZUAK AKORDIOZKO  
PROZEDURA** BIDEZ KONTRATATZEA

Gaia: **Altzibarko ALT-4 eremuaren urbanizazio proiektuan sartutako obrak burutzeko Zuzendaritza Fakultatiboa (Oartzun).**

## **I.- KONTRATUAREN EDUKIA**

### **1. KONTRATUAREN GAIA**

Kontratuaren gaia, espedientean zehaztutakoekin bat etorritz, Altzibarko ALT-4 eremuaren urbanizazio proiektuan sartutako obrak burutzeko Zuzendaritza Fakultatiboa kontratatzea da, espedienteko dokumentazio teknikoarekin bat etorritz. Dokumentazio hau kontratu-izaera du.

Kontratuan hurrengo lanak egin beharko dira:

- Obra-zuzendaritzako zereginak, Bideen Injeniaritzan edo Arkitekturan Lizentziatura duen teknikari batek egin beharrekoa.
- Obra gauzatzeko zuzendaritza-lanak. Erdi Mailako Teknikari titulua duen teknikari batek egin beharrekoa.
- Segurtasun eta Osasun zereginak Koordinatzea, Goi Mailako edo Erdi Mailako Teknikaria izan beharko duena. Teknikaria zuzendaritza fakultatiboan solidarioki integratua egon daiteke eta, hala bada, eskaintzan adierazi beharko da.
- Kalitate Kontrolaren Programaren jarraipen lanak.
- Obra-amaiera ziurtatzeko beharrezko dokumentazioa egitea.

Kontratuaren gaiaren kodea, CPV nomenklaturaren arabera: 74224000.

### **2. OBRAK BURUTZEKO EPEA**

Zuzendaritza eskaintzen den obrak egiteko epea 30 hilabetekoa da, eta kontratu hau obra kontratuaren osagarri denez, obra kontratuaren iraupen berdina izango du, gehi kontratuaren likidazioarekin lotutako lanak egiteko beharrezkoa epea, SPKLaren 279. artikulua 4. atalarekin adostasunean.

Kontratu osagarri hau ez da hasiko obra kontratua egikaritzen hasi arte, beti ere bere objektuak edo edukiak besterik agintzen ez badu.

Kontuan hartu behar da kontratuaren epea luzatu egiten dela obren berme-epearen amaieran egin beharreko txostena egin arte, kasu honetan bi urtekoa dena, obren harrera formala egiten denetik kontatzen hasita.

### 3. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratu honen prezioa 47.905,07 Eurotan ezartzen da, BEZ kanpo. BEZa 8.622,91 Eurokoa da, guztira 56.527,98 Euro. Lizitzaileek kopuru hori hobetu dezakete. Edozein kasutan, BEZari dagokion kopurua bereiztua zehaztu beharko da.

Lanen ordainketa onartzen diren ziurtapenen arabera egingo da.

### 4. FINANTZATZEA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan. Bestaldetik, hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jarriko ditu aurrekontu gaietan eskumena duen organoak.

### 5. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honen prezioak berraztertu ahal izango dira. Berraztertze hori bat dator Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 77 eta 82 bitarteko artikuluetan eta lege hori garatzen duen Araudi Orokorren 104 eta 106 bitarteko artikuluetan xedatutakoarekin. Horretarako Gipuzkoako Lurralde Historikoko KPIaren urtez urteko igoeraren %85a aplikatuko da.

### 6. BERMEAK

a ) Behin-behineko Bermea.- Lehiatzaileek behin-behineko bermea jarri behar dute lizitazio honetan parte hartzeko; berme hori kontratuaren prezioaren %3 izango da, beraz, 1.437,15 Euro, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 91.3. artikuluan ezarritako bitartekoen bidez jarriko dute.

Esku-dirutan ordaindu nahi izanez gero, Kutzako 2101 0060 00 00000 89367 kontu-zenbakian sartu beharko da.

Behin-behineko bermea esleipena egin eta gero itzuliko da.

Lehiatzaile guztien proposamenek kontratua esleitu arte iraungo dutela eta esleipendunaren proposamenak kontratua formalizatu arte iraungo duela ziurtatzeko eskatzen da behin-behineko bermea. Izan ere, berme hori inkautatu egingo da baldin eta kontratua esleitu aurretik enpresaren batek bere proposamena bertan behera uzten badu bidezko arrazoirik gabe, edo kontratua esleitu eta gero esleipendunak behin betiko

bermerik jartzen ez badu, edo beraren erruagatik kontratua epean formalizatzerik ez badago. Horrelakoetan bermea betearaziko da.

b) Behin betiko Bermea.- Ekonomikoki proposamenik onuragarriena duen lizitatzailleak behin betiko bermea eman beharko du, hartutako konpromisoak beteko dituela bermatzeko. Kopuru hori esleipeneko zenbatekoaren % 5ekoa izango da, BEZ gabe. SPKLren 84.1. artikuluan ezarritako bitartekoen bidez jarriko da.

Berme hori jartzeko epea 10 egun baliodunekoa izango da hori egiteko errekerimendua jasotzen denetik. Bermea jartzeko bidea, berriz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 84. artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke ( esku- dirutan egiten bada a) atalean zehaztutako kontu zenbakian egingo da).

Behin betiko bermearen bitartez honako alderdi hauek ziurtatuko dira: kontratuan jasotzen diren eginkizunak egoki egitea; Administrazioari sortutako kalteak, kontratistak bere betebeharrak berandu betetzeagatik; kontratua egikaritzean Administrazioari eragindako kalteak, edo kontratua ez betetzeagatik eragindako gastuak, kontratua etetea egoki ez denean; kontratistari ezarritako zigorrak; kontratua eteten denena agindu daitekeen konfiskatzea.

Baldin eta Administrazioa bermeaz baliatzen bada gorago zehaztutako kasuetarako, bermea berehala osatu edo jarri behar da berriro, eta borondatez hala egiten ez bada horretarako emandako epean, hurrengo ziurtapena egiten denean kendu egingo da dagokion kopurua.

Berme-epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 90. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri egingo da.

## 7. KONTRATUA BURUTZEA

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da.

Horiek gorabehera, zerbitzu ematerakoan honako hauek bete beharko dira: a) agiri honetan ezarritako baldintzak; b) baldintza-agiriarekin batera dauden xehetasun teknikoak, eta c) Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritakoak eta urriaren 12ko 1.098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Herri Administrazioen Kontratuaren Legearen Araudi Orokorrean ezarritakoak. Bereziki, Administrazioaren kontratua interpretatzeko ematen dituen ahalbideak.

Esleipendunari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

## 8. ESLEIPENDUNAREN LAN-EGINKIZUNAK

Esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higiearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

## 9. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Esleipendunaren ardura da egingo dituen lanen eta zerbitzuen kalitatea, eta era berean, kontratuaren egikaritzean egindako huts, akats, metodo desegokiak edo konklusio txarregatik Administrazioari edo hirugarren goei eragindako kalteak, SPKLaren 198. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

## 10. KONTRATUA ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du, ustekabeko arrazoiak sortzen direnean. Esleipendunak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 284.c) artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

## 11. BERME-EPEA

Behin betiko bermea ez da itzuliko obren berme-epea amaitzerakoan egin beharreko obren egoerari buruzko azken txostena egin arte, SPKLaren 218. artikuluen 3. atalarekin adostasunean.

## 12. ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

### A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko obrak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko.

Atzerapenagatik zigorren gutzizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

### B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

Prestazioa burutzean akatsak izan badira, Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

### 13. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 206 eta 284. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

### 14. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

### 15. EUSKARA

Enpresa esleipendunak udalaren hizkuntz jarduera arautzeko planen arabera jokatu du.

Beraz, zerbitzua ematerakoan herritarrekin dituen ahozko harremanak euskaraz gauzatuko ditu. Hots, enpresa esleipendunaren langileak lehenengo hitza euskaraz egingo du eta zerbitzu jasoleak hautatzen duen hizkuntzan jarraituko du elkarrizketa.

Enpresa esleipendunak zerbitzua ematerakoan herritarren esku jartzen dituen agiri, txartel, ohar eta gainerako idatziak euskara hutsez emango ditu ezagutzera. Salbuespen modura, ele biz argitaratu ahal izango da; betiere, euskara lehenetsita eta udalak alde aurretik adostasuna emanda.

Enpresa esleipendunak udalarekin dituen ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izango ditu.

Hizkuntz betebeharrak horiek betetzen direla egiaztatzeko jarraipena egitea kontratazio organoari dagokio baina kontratazioa eragin duen udal lantsailaren ardura izango da, Euskara Zerbitzuarekin lankidetzan, beharrezkoa den informazioa kontratazio organoaren eskutan jartzea. Hizkuntz betebeharrak horiek behin eta berriz urratzea nahiko arrazoi izango da kontratua amaiarazteko.

## **II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA**

### **16. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA**

Kontratu honen esleipena jendeaurrean zabaldu gabeko akordiozko jardunbide bidez egingo da SPKLaren 153 eta hurrengo artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

Kontratuaren esleipena egiteko honako irizpide hauek hartuko dira oinarritzat::

- Ordainsarien murrizketa.- Irizpide honengatik 50 PUNTU emango dira gehienez ere. Proposamenei PUNTU 1 emango zaie lizitazioaren aurrekontutik jaisten dituzten 1.000 € bakoitzeko.
- Eremuaren ezagutza.- Irizpide honengatik 25 PUNTU emango dira gehienez ere.
- Hobekuntzak: Bereziki etxebizitzaren eraikuntza obrarekin koordinazioa.- Irizpide honengatik 25 PUNTU emango dira gehienez ere.

### **17. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA**

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoen parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeke debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 49. artikuluan adierazitako arazoak direla eta. Kaudimena egiaztatzeke eta ebaluatzeke bideak hurrengo baldintzaren e) eta f) puntuetan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoen beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeke gaitasunik eza dakarten arazoak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Enpresariak, gainera, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

Ezingo dute parte hartu kontratazio honen espezifikazio teknikoaren elaborazioan lan egin duten enpresek, beti ere parte hartu izanak konkurrentziaren aurka egiten badu edota tratu pribilegiatua suposatzen badu beste lizitatzailerekin alderatuta.

Obren eta instalazioen egikaritzearen ikuskaritza, gainbegiratze, kontrol edo zuzendaritzarako zerbitzu-kontratuak ezin izango dira esleitu obraren esleipenduna den enpresari edo honekin lotura duen enpresei.

## 18. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu ahal izango da:

LEKUA: Oiartzungo Udala, Done Eztebe plaza 1, 20180 OIARTZUN.

ORDUAK: 08:30-14:00.

EPEA: Egun baliordunetan, enpresek lehiaketa honetan parte hartzeko gonbidapena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, proposamenak aurkezteko epea bukatu arte.

Proposamenak aurretik adierazitako lekuan eta ordutegian aurkeztuko dira, euskeraz edo erderaz, 15 egun naturaleko epean enpresek lehiaketa honetan parte hartzeko gonbidapena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Gainera, eskaintza hau kontratazio-organoko kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da, honako webgunean eskuratu ahal izango dena: [www.oartzun.org](http://www.oartzun.org).

Ez dira onartuko epetik kanpo aurkezten diren proposamenak, nahiz eta postetxean epea amaitu baino lehen bidali. Dena dela, proposamena onartu egingo da baldin eta epe barruan bidali zela egiaztatzen bada. Horretarako, lehiatzaileak, proposamena bidaltzen duen egunean bertan, posta-egiaztagiria bidali beharko dio kontratazio-organismoari telekopiaz, faxez, telegramaz edo posta elektronikoz. Posta elektronikoz bidatzen badu, baliozkoa izan dadin, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Araudi Orokorren 80.4 artikuluan ezarritakoa bete beharko du.

Lehiatzaileek hiru kartazal (A, B eta C) aurkeztu beharko dituzte itxita. Kartazal bakoitzean honako hau idatziko da: "ALTZIBARKO ALT-4 EREMUAREN URBANIZAZIO PROIEKTUAN SARTUTAKO OBRAK BURUTZEKO ZUZENDARITZA FAKULTATIBOAREN KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA":

- 1) "A" KARTAZALA. KONTRATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA.
- 2) "B" KARTAZALA. "PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA FORMULA BIDEZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK.
- 3) "C" KARTAZALA. BALORAZIO IRITZI BATEN GAI IZANGO DIREN IRIZPIDEAK.

Kartazal bakoitzean enpresaren izena eta proposamen-izenpetzailearen izen-abizenak jarriko dira, noren izenean izenpetzen duen zehaztuz. Hiru kartazalek ere izenpetuta egon beharko dute.

1.- "A" KARTAZALA: Kartazala honen azpititulua hau izango da: "KONTRATAZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA". Hona hemen "A" kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

a) Lehiatzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea.

b) Lehiatzailea pertsona juridikoa izanez gero, eratze- edo aldaketa-eskritura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio

fiskaleko zenbakian, inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lehiatzailearen jardura zuzentzen duten arauak.

c) Lehiatzaileak erantzukizunpeko berariazko aitortpena aurkeztu behar du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49. artikuluan kontratatzeko ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Aitortpen horretan berariaz adieraziko du kitaturik dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak; edo, hala egiten ez badu, egiaztagiriak aurkeztuko ditu, betebeharrak horiek beterik dituela frogatzeko.

d) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

e) Kaudimen ekonomikoaren eta finantzarioaren egiaztapena, SPKLko 64. artikuluan adierazten den bezala.

f) Lehiatzaileen kaudimen tekniko eta profesional hurrengo bideetatik egiaztatu beharko da:

- Prestakuntza profesionala egiaztatzeko agiria, dagokion Elkargo Ofizialarena.
- Azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lanak dagozkien ziurtagirien bidez, non zenbatekoa, datak eta hartzailea, publiko edo pribatua, zehaztu beharko da.
- Kontratuaren egikaritzean parte hartuko duen langileria adieraztea eta horien titulu akademiko eta profesionala egiaztatzea.

Taldeko teknikariren baten ordeztuak besteren bat jartzen bada, berehala jakinaraziko zaio Udalari, eta honek, ados ez badago, kontratua deusezta dezake lanen garapeneren arabera dagokion zati proportzionala ordainduta, baina kontratuaren azken prezioetik %10 kenduta zigor gisa, eta alde bakoitzak lituzkeen erantzukizunak baztertu gabe.

Ondorioz, eta proposamen ekonomikoa jasotzen duen gutunazala ireki behar gabe, baztertuak izango dira goian aipatutako baldintzak betetzen ez dituzten enpresak.

g) Egin beharreko lanen zehaztapen-txostena.

h) Behin-behineko bermea edo jarri izanaren agiria.

i) Erantzukizun zibileko aseguruia 600.000 €ko gutxieneko kapitalarekin.

j) Jakinarazpenak egiteko helbide bat.

k) Kartazalaren edukia, zenbakiz adierazita.



Goiko a), b) eta e) puntuetan adierazitako baldintzak ziurtatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Eskaintzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, Estatuko Eskaintzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, edo Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiri batekin, SPKLaren 73. artikulua xedatutakoaren arabera. Kasu honetan, ziurtapenarekin batera, adierazitako egoerak aldatu ez direla ziurtatzen duen eskaintzailearen ardura-adierazpena ere gehitu beharko da.

Esleipena egin eta urte bateko epean lizitatuzaileek ez badute aurkeztutako dokumentazioa itzultzea eskatzen, suntsitu egingo du Administrazioak.

2.- **“B” KARTAZALA:** Kartazal honek hurrengo azpiz titulua izango du: “PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA FORMULA BIDEZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEAK” eta hurrengo jaso beharko da bertan:

a) Honako eredu honen arabera proposamen ekonomikoa:

**Lehiatzailearen datuak:**

Izen-abizenak .....  
Helbidea .....  
Posta kodea ....., NAN, ....., Telefonoa .....

**Ordezkararen datuak** (ordezkaririk egonez gero):

Izen-abizenak .....  
Helbidea .....  
Posta kodea ....., NAN edo IFK, ....., Telefonoa .....

..... kontratatzeko asmoz .....k dei egindako lehiaketaren berri izan dudala, hona hemen nire

**ADIERAZPENA**

1) Hitz ematen dut kontratua honako prezio honetan burutuko dudala: .....  
€, Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) barne. Prezio horren %....., hau da, ..... €, BEZari dagokio. Prezioaren barruan gai guztiak sartzen dira: zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo ariel, bai eta esleipendunaren industri onura ere. Kontratua burutzeko epea honakoa izango da: .....

2) Proiektua ezagutzen dut bere edukiarekin, bai eta kontratu hau arautu behar duten administrazio-baldintza zehatzen agiria eta gainontzeko agiriak ere. Horiek horrela, neure gain hartu eta ontzat hartzen ditut oso-osorik.

3) Ordezkatzen dudak enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu.

....., 20....(e)ko .....aren ....(a)

Izenpea

b) Agiri honen 16. baldintzan zehaztutako esleipen-irizpideetatik formula baten bidez baloratu behar direnak egiaztatzen dituztenak, alegia: Prezioa.

3.- “C” KARTAZALA: Kartazala honen azpititulua hurrengo izango da: “BALORAZIO IRITZI BATEN GAI IZANGO DIREN IRIZPIDEAK” 16. baldintzan zehaztutako esleipen-irizpideetatik balorazio iritzi baten gai izan behar duten irizpideak egiaztatzen dituzten agiriak.; hain zuzen ere, eremuaren ezagutza eta hobekuntzak.

Jatorrizko agiriak edo kopiak aurkez daitezke. Kopiak aurkeztekotan, aurretik Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu.

## 19.- NEGOZIAKETARAKO GAI TEKNIKO ETA EKONOMIKOAK

Negoiazioa SPKLaren 162. artikularekin bat egingo da, plegu honen 16. puntuan ezarritako balorazio irizpideekin lotuta.

## 20.- ESLEIPENA ETA KONTRATUA FORMALIZATZEA

Egindako proposamenak ikusirik eta, hala baleude, parte-hartzaileekin negoziazioak amaiturik, zerbitzu teknikoen esku utziko da espedientea, ondoren Batzordeak diktaminatu eta kontratazio-organoaren irizpenera jar dezan esleipena.

Eskaintza abantailatsuena egin duen lizitatzailleak gehienez 10 laneguneko epea izango du, eskakizun hau jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita, ondoren zehazten diren ziurtagiriak aurkezteko:

a).- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete izana egiaztatzen duten agiriak, non eta ez dituen alde aurretik eskaintzarekin batera aurkeztu, eta, dagokionean, kontratua betetzeko agindu zituen bitartekoak benetan jarri dituela egiaztatzen duten agiriak.

b).- Behin betiko bermea eta berme osagarria ordaintzea, hala balegokio.

Dagozkion ziurtagiriak bitarteko elektronikoen, informatikoen edo telematikoen bidez igorri ahal izango dira.

Eskakizun hau aipatu epean eta behar bezala betetzen ez bada, lizitatzailleak bere eskaintza aurkezteari uko egiten diola ulertuko da eta, eskaintzen sailkapenari jarraiki, ondorengo lizitatzaileri eskatuko zaizkio agiri berdinak.

Esleipena egiteko gehienezko epea 2 hilabetekoa izango da, proposamenak irekitzen diren egunaren biharamunetik kontaktzen hasita.

Epe hori, 15 laneguneko epeaz luzatu ahal izango da, neurritz kanpokoa edo normala ez den proposamenen bat identifikatzen denean. Izan ere, kasu horretan, eskaintza hori aurkeztu duen lizitatzaileri entzunaldia eskaini behar zaio, eskaintzaren balorazioa justifika

dezan eta baldintzak zehaztu ditzan. Esleipena aipatu epeen barruan gauzatuko ez balitz, lizitatzailleek proposamena atzera botatzeko eskubidea izango lukete.

Kontratazio organoak ezingo du utzi kontratua eman gabe, baldintza-agirian agertzen diren irizpideen arabera onargarria den proposamen edo eskaintzaren baso bada.

Kontratuaren esleipena ebazpenaren bidez erabakiko du kontratazio organoak, eskatutako agiriak jasotzen diren egunetik 5 laneguneko epean. Ebazpen hori hautagaiei edo lizitatzaillei jakinaraziko zaie eta Oiartzungo Udaleko Kontratatzailearen Profilean ([www.oiartzun.org](http://www.oiartzun.org)) argitaratuko da.

Nolanahi ere, baztertutako lizitatzailleek, igortzen zaien jakinarazpenean, esleipen erabakiaren aurka nahiko oinarri duen helegitea, hala balegokio, aurkezteko beharrezkoa den informazio guztia jaso beharko dute. Horiei eman beharreko informazioari dagokionez, SPKLko 137. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da. Jakinarazpena hartzaileak jaso duela ziurtatzen duen edozein bitarteko erabiliko da erabakiaren jakinarazpena egiteko.

Lizitatzailleek esleipenaren jakinarazpena 135.4 artikuluan aurreikusitako moduan jasotzen duten egunetik kontatzen hasita 15 laneguneko epean gehienez ere sinatu beharko dute kontratua, Administrazioaren aurrean agertuz.

Kontratuak formalizazioaren bitartez indar juridikoa hartuko du. Esleipendunaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak bertan behera utzi ahal izango du, interesduna entzun eta gero, eta kalte-galerak ordainduko dira.

### **III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA**

#### **21. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA**

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak, urriaren 30eko 30/2007 Legearen bidez onetsiak, ezarritako arauak bete beharko dira. Horiez gainera, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak, urriaren 12ko 1.098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsiak, ezarritako arauak ere bete beharko dira, eta bai herri administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerakoak ere.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

#### **22. DATU PERTSONALEN BABESA**

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak SPKLaren Hogeita Hamaikagarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko

ditu, Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.

### 23. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorritik.

Oiartzun, 2011ko martxoaren 24an.